

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

**Natalia Martinez, Naia Astarloa, Joana Sanchez, Adarrosa Wilches eta Libe Basabe - BAURF**

Supermerkatuetan eta janari komertzioetan soberan duten janaria batzen duen eta txakurrentzako BARF dieta prestatzen eta sakabanatzen duen enpresa bat eratzea bururatu zaigu.



Idea hau garatzeko prozesuan gizartean dauden arazo nagusiak aztertzen ibili gara eta horri esker konturatu ginen daukagun arazo larrietako bat **ingurumenenaren** kontzientziazio falta dela. Hori dela eta, supermerkatuek duten **inpaktuan** bereziki zentratzea erabaki dugu. Izan ere, askotan entzun eta ikasi dugu supermerkatuetan erosten ez diren produktuak edota bidean apurtzen edo hondatzen direnak ez direla ezertarako erabiltzen eta **zabor** moduan amaitzen dutela. **Baliabideen** sekulako **galera** suposatzen du horrek, supermerkatuek **dirua galtzeaz** aparte.

Bestalde, jakina da lehen munduko "arazoa" dela, eta asko kontrastatzen duela hirugarren munduko egoerarekin: **pobrezia** oso handia denez **janari** eta **ur eskasia** izugarria da. Horregatik guztion baliabide den janariaren **xauketarekin** behingoz **bukatze**ko, probetxurik gabe



dauden elikagai horiekin, hala nola, fruta, egosi gabeko barazkiak, arrautzak, hezurak, erraiak eta haragi giharra **txakurrentzako** **pentsu normala baino osasungarriagoa eta elikagarriagoa** den BARF dieta egiteaz arduratzen den enpresa ekologista sortuko dugu, Baurf izena duena. Izen hori dieta motaren izenetik eta txakurren zaunkaren onomatopeiatik eratorri dugu, talde guztiaren artean gure produktua irudikatzean otu zaizkigun hitzak lotu eta aukera egokiena hautatu ondoren.

### **Ba ahal dakizue nondik sortu zen gure ideia?**

Startinnoarako taldeak egin genituenean, elkarren artean ezagutzen hasi ginen. Orduan konturatu ginen komunean genuena, **denek txakurrak genituela** zela. Horregatik, txakurren inguruko proiektu bat egitea erabaki genuen. Taldekide batek kontatu zigun, bere txakur bat dieta eta **nutrizio txarragatik hil zela**. Horrez gain, **ingurunearen egoera kezkarria** dela eta, zerbait egin nahi genuen horrekin erlazionatuta. Horregatik, pentsu bat aldi berean osasuntsua eta ekologikoa zena egitea erabaki genuen. **Baliabide ekologikoak erabiliz, momentuan egindako produktua eskainiko dugu, txakurren osasuna eta bezeroen gogobetetasuna lehenetsiz.**

